



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

2012

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua.

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasok, eta haren barruan geratzen dira jasota.

#### 2. artikulua.

Ordenantza hau udalaren eremu osoan aplikatuko da.

### II. ZERGAGAIA

#### 3. artikulua.

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak eratzen du zergagaia.

### III. SUBJEKTU PASIBOA

#### 4. artikulua

1.- Honako hauek izango dira, zergadun gisa, subjeto pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 34. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Administrazio Publikoak, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazioanalarekin zerikusia duten guztietan.

#### 5. artikulua.

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, aprobetxamenduaren onuradun direnek.

### IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

#### 6. artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

### V. OINARRI EZARGARRIA

#### 7. artikulua.

Oinarri ezargarrria jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

### VI. KUOTA

#### 8. artikulua.

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

2.- Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztu aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Udalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diruitzulketak.

## **VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**

### **9. artikulua.**

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

## **VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

### **10. artikulua.**

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

## **IX. TASEN KUDEAKETA**

### **11. artikulua.**

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Araua Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

## **X. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, bere Eranskina barne, Udalak 1998ko urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean. Aldatu zen lehenengoz, 1999ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran. Bigarren, 2000ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran. Hirugarren, 2001eko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran. Laugarren, 2002ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran. Bosgarren, 2003ko urriaren 15ean egindako Ezohiko Osoko Bilkuran. Seigarren, 2004ko urriaren 13an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran. Zazpigarren, 2005eko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2005eko abenduaren 23an. Zortzigarren, 2006ko irailaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2006ko azaroaren 21an. Bederetzigarren, 2007ko urriaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2007ko abenduaren 14an. Hamargarren, 2008ko urriaren 17an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2008ko abenduaren 4an. Hamaikagarren, 2009ko urriaren 16an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2009ko abenduaren 4an.

Aldaketa hau 2011ko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean, eta behin betiko 2011ko azaroaren 29an. 2012ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean.



## ERANSKINAK

### I. TARIFAK

Jarraian adieraziko diren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezi bakoitzari dagozkion tarifei, Eranskinen II.zk.an (kaleen sailkapenari buruzkoa) adierazitako gehikuntza indizeak aplikatuko zaizko.

#### **A) EPIGRAFEA: HERRI-ERABILERAOKO LURRAK OKUPATZEA HONAKOAK DITUZTELA: MERKANTZIAK, ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK, HONDAKINAK, HESIAK, ALDAMIOAK, ZUTABE, EUSTAGAK, EDUKIONTZIAK, GARABIAK ETA ANTZEKO INSTALAZIOAK**

- m<sup>2</sup> edo zatikiko eta aste edo zatikiko: 2,60 €

- Hondakindegia edo edukiontzia:  
m<sup>2</sup> edo zatikiko eta aste edo zatikiko: 7,73 €

- Eraikuntza-obretarako beharrezkoak diren etxetxoak eta roulotak, laneko segurtasuneko eta higieneko araudiarekin bat, eta, materialak edo antzekoak (ez hondakinak) uzteko edukiontzia:  
m<sup>2</sup> edo metro-zati bakoitzeko eta egun bakoitzeko: 7,73 €

#### **Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Epigrafe honek aipatzen dituen lanak bi hilabete baino denbora luzeagoz eteten badira arrazoizko kausarik gabe, tarifa honen aplikaziotik ateratzen diren zenbatekoek 100eko 100eko gainkargua izango dute hirugarren hilabetetik aurrera, eta lanak bukatuak aprobetxamenduek jarraitzen dutenean, zenbatekoek 100eko 200eko gainkargua izango dute.

b) Fatxadak zartzeko lanen ondorioz ipini beharreko hesi eta aldamiok dagozkien tarifek 100eko 50eko gutxitzea izango dute, beti ere instalazio epealdia hiru hilabete baino gehiagokoa ez denean.

#### **B) EPIGRAFEA: IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR SARTZEA ETA BIDE PUBLIKOAN APARKA-TZEKO ERRESERBAK, IBILGAILUEN GELDIALDIA, EDOZEIN MOTATAKO MERKANTZIEN ZAMALANAK**

##### **A) Ibilgailuak eraikinetara sartzea:**

1.- Gehienez 4 ibilgailurentzako igarobide bakoitzeko: 37,61 €/urteko.

2.- Kopuru horri gehitzen zaion ibilgailu bakoitzeko: 8,97 €/urteko.

**B) Industria eta ibilgailu dendetarako sarrera:** 122,20 €/urteko.

**C) Eraikitzen ari diren eraikinetarako sarrera.** Espaloitik igarotzea metro lineal edo zatikiko eta urte edo zatikiko: 56,57 €/urteko.

##### **D) Aparkaleku erreserba:**

1.- Aparkaleku erreserba iraunkorrak; ml. edo zatikiko: 52,78 €/urteko.

2.- Aparkaleku erreserba denda ordutegian edo aldi batez; metro lineal edo zatikiko: 45,05 €/urteko.

3.- Taxi aparkalekuetan, ibilgailu bakoitzeko: 105,50 €/urteko.

#### **Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Espaloiko pasabidearen zabalera zintarria jaitsirik dagoeneko metro karratuen arabera zehaztuko da zintarria dagoenean. Espaloiko zintarria jaitsirik ez balego eta espaloia kendu gabe, neurria guztira kasu bakoitzeko lokal edo orubera sartzeko hutsunearen luzera erabilgarria izango da.

b) Lokal batek bi pasabide edo gehiago baditu, lehenengoak dagozkion tarifaren arabera ordainduko du zerga eta gainontzekoak dagozkionaren %50.

c) Pasabideak jarri, mantendu, eraberritu nahiz kentzeko eta aparkalekuen erreserbarako hala nola horien seinalizazioarako gastuak eskatzaileen kontu eta kargurakoak izango dira.

d) Tarifa hauen arabera eskatzen diren kopuruak eskatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira eta laburtezinak izango dira hile naturaleko.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

e) Ordaintzeko beharreko hauexetatik sortzen da:

1. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean baimen bereziak ematen badira, hainbanaketa kalkulatu behar da hurrengoko hilearen lehenengo egunetik hasita. Hainbanaketa hori, hileari dagokionean, baxa kasuetan aplikatuko da.
2. Baimendutako aprobetxamenduak edo erabilerak badira, urte naturaleko lehenengo egunetik hasita.

**C) EPIGRAFEA. IBILGAILUEK ALDI BATERAKO OKUPATZEA ETXE-ALDAKETARAKO EDOTA ZAMALANETARAKO.**

Etxe-aldaketarako edota zamalanetarako bide publikoa aldi baterako okupatzeagatik:

1. Aparkalekua okupatzen bada: 2,60 € metro lineal bakoitzeko edo zatiko, erreserbatutako espaloiare zintarriarekiko paralelo, eta eguneko edo zatiko.
2. Aparkalekua baterian bada: aurreko kuota %50ean handituko da.
3. Zirkulazioko errail bat okupatzen bada: 10 € metro karratuko edo zatiko, erreserbatutako gunearen azalera eta eguneko edo zatiko.

Salbuesenez, kalea moztea beharrezkoa izango balitz, aipatu kuota %50ean handituko da.

**Aplikazio arauak**

Tasa jabari publikoa okupatzen denean sortzen da. Okupazio hori dagokion baimenak ahalbideratzen du. Aldez aurretik ordaindu beharko da. Dagokion kopurua Udalaren erakunde laguntzaile batean sartu beharko da.

**D) EPIGRAFEA. ERABILERA PUBLIKOKOAK DIREN BERTAKO LURRAK OKUPATZEA MAHAI, AULKI ETA ANTZEKOEKIN, BETI ERE IRABAZTEKO ASMOAREKIN:**

**Metro karratuko edo zatikiko eta urteko:**

- Toki estalietan: 23,12 €

- Toki estali gabeetan: 11,62 €

**Tarifak aplikatzeko arauak:**

a) Tarifa hauei dagokien kopuru galdagarria urte osorako eskatutako edo burututako aprobetxamendu bakoitzak likidatuko du.

b) Ordaintzeko beharra hauexetatik sortzen da:

1. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezi hasten denean baimen bereziak ematen badira, hainbanaketa kalkulatu behar da hurrengoko hilearen lehenengo egunetik hasita. Hainbanaketa hori, hileari dagokionean, baxa kasuetan aplikatuko da.
2. Baimendutako aprobetxamenduak edo erabilerak badira, urte naturaleko lehenengo egunetik hasita.

c) Orokorrean bost urteko iraupena duen zerga-kuotaren % 50eko hobaria ezarriko zaie 2004ko irailaren 29ko Osoko Bilkurak onetsitako Terrazak jartzea arautzen duen Udal Ordenantzaren arabera lehenengo aldiz terrazak jartzeko lizentzia lortzen duten subjektu pasiboei.

Hobaria indarrean dagoen bitartean lokalak lekua aldatzen badu, eskatutako higigarriak barne, jabe berriak hobari hau izango du gainerako denboraldirako aurreko jabeari hobaria eman zitzaionetik bost urteko epea bete arte.

**E) EPIGRAFEA. KIOSKOAK HERRI-BIDEAN**

**Metro karratuko edo zatikiko eta hileko edo zatikiko: 12,85 €**

**Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Tarifa hauen arabera eskatzekoak diren kopuruak eskatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira eta laburtezinak izango dira hile naturaleko.

b) Litazio publikoko prozedurak erabiltzen direnean, emakida, baimena edo esleipena izango duen proposamenaren balio ekonomikoak ezartzen duenaren arabera izango da tasaren zenbatekoa.

c) Ordaintzeko beharra hauexetatik sortzen da:

- Emakidak edo baimenak badira, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean.
- Baimendutako emakidak badira, urte bakoitzeko lehenengo egunean.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**F) EPIGRAFEA: POSTUAK, BARRAKAK, SALMENTA POSTUAK, IKUS-KIZUNAK, ATRAKZIO EDO JOLAS-TOKIAK JARTZEA ERABILERA PUBLIKOKO BERTAKO TOKIETAN, BAITA KALEKO INDUSTRIAK ETA IBILTARIAK ERE**

**1) ASTEKO MERKATU TXIKIAK**

Baserriko produktuen salmenta-postua m. lineal eta eguneko: 0,93 €

Beste produktuen salmenta-postuak m. lineal eta eguneko: 3,14 €

**Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Txabolak, postuak, jarlekuak eta gainontzeko aprobetxamenduak Udal Administrazioari eskatu beharko zaizkie eta horien emakida eta gozamina udal merkatu eta merkatu txikiei buruz Udalak onartutako Araudi, Kontratu eta xedapen berezietara lotuko zaizkie. Hala ere, Ordenantza arautzaileak xedatutakoaren kaltetan gabe, bi hiruhilabeteko ordaindu gabe izateak, emandako aprobetxamenduaren gozamina kentzea ekarriko du.

b) Adierazitako tarifak Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskaritzako Udal Ordenantzaren Xedapen Gehigarrian ezarritako hiruhilabetekoetan ordainduko dira. Hala ere, baserriko produktuei dagozkien asteko tarifak banku-helbideratzearen bidez kobratuko dira urtero.

**2) AZOKA DAGOENEAN ETA HERRIKO JAIETAN JARTZEN DIREN SALMENTA POSTUAK, BARRAKAK ETA ERA HORRETAKO INSTALAZIOAK.**

**Metro karratuko edo zatikiko eta astero edo zatikiko: 3,35 €**

**Tarifak aplikatzeko arauak**

a) Ferialekuen lurak esleitzeko enkante, lehiaketa edo kontratuen sistema erabiltzen bada, Udalak kasuan kasuko erabakitzen dituen oinarri eta baldintzen arabera egingo da esleipena. Kasu horietan, emakida, baimena edo esleipena izango duen proposamenaren balio ekonomikoak ezartzen duenaren arabera izango da tasaren zenbatekoa.

b) Tarifak asteko kopuruko edo zatiko aplikatuko dira eta aurreko koefizienteak aplikazio horretatik sortzen den kopuruaren %75 gutxitik da, baldin eta orokorrak ez diren feria edo jaiak edo ferialekuetan sartzen ez diren instalazioak badira.

**3) BESTE ERABILPENAK**

Lurzorua okupatzeagatik behin-behingo instalazioekin, mahai desmuntagarri edo antzerakoekin, edota edozein artikulua saltzeko ibilgailuekin:

**Metro linealeko edo zatiko eta asteko edo zatiko: 3,18 €**

**G) EPIGRAFEA: UDAL TITULARITATEA DUTEN BIDEAK ERABILTZEA**

Zergagaiak dira udal titularitatearen duten landabideak erabili eta era berezian aprobetxatzen duten ibilgailu astunak, baldin eta tonakopuruak zoria kaltetzeko arriskua badakar, eta bereziki egurra eta peiak garraiotzen dituztenak. Garraiotarako udal lizentziaren emakida behar da aurretik.

Fidantza ordaindu behar dute nahitaez bidearen erabilpenari edo aprobetxamenduari dagokion lizentzia tramitatu eta lortu duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek, beti ere lizentzian agertzen denaren arabera. Zurgaien enpresetako arduradunak ere erantzuleak izango dira, eta horien orde, zura garraiotuko duena.

Bidearen erabilpena edo aprobetxamendu berezian narriadura edo hondatzea gertatuz gero, Ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoa jarraituko da.

<b>Fidantzen zenbatekoa</b>	
<b>Bidearen luzera</b>	<b>Fidantza</b>
<b>1 Km. baino gutxiago</b>	<b>2,11 €/estereo edo 3,20 €/Tm.</b>
<b>1 eta 2 Km. bitartean</b>	<b>3,03 €/estereo edo 4,62 €/Tm.</b>
<b>2 Km. baino gehiago</b>	<b>3,59 €/estereo edo 5,36 €/Tm.</b>
<b>Gutxieneko fidantza, nolana ere, ondoko hau izango da:</b>	<b>2.726,12 €</b>



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**H) EPIGRAFEA: BIDE PUBLIKOAREN GAINEAN EDO TOKIKO JABARI PUBLIKOKO LURSAILEN GAINEAN EZARRITAKO EDO HAUEN GAINETIK HEGAN EGITEN DUTEN GAILUEK OKUPATZEA SALMENTA AUTOMATIKORAKO ETA ANTZEKOETARAKO  
Metro linealeko edo zatikiko eta urteko: 146,84 €**

**Tarifak aplikatzeko arauak:**

a) Tarifa hauei dagokien kopuru galdagarria urte osorako eskatutako edo burututako aprobetxamendu bakoitzak likidatuko du.

b) Ordaindu beharraren jatorria hauex da:

-Erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten den unean baimen edo instalazio berriak egotea, kuotaren hainbanaketa hiruhileko naturaletan kalkulaturaz gero. Hainbanaketa hau bajak daudenean aplikatuko da.

- Lehendik baimendutako edo instalatutako aprobetxamenduak edo erabilerak egotea, urte naturalen lehenengo egunean.

c) Kontzeptu zehatz honen bidez bide publikoaren gainean edo tokiko jabari publikoko lursailen gainean ezarritako edo hauen gainetik hegan egiten duten kutzazain automatikoak, bideo, gozoki saltzaileak, freskagarrien makinak eta antzekoak likidatuko dira.

**II.- KALEEN SAILKAPENA**

Kaleak eta orokorrean Udalerriko tokiak, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Eranskinean ezarritako kategorietan banatzen dira. Tarifa hauetan aplikatuko diren gehikuntza indizeak aipatutako Zergan kale kategoria bakoitzari dagozkionak dira.